

mgm

Rafa Egiguren

SARRERA

Argiak itzali ahala, Santa Agedako makilen hotsa nabarmenduko da gero eta ozenago. Oihala zabaldutakoan, zortzi lagun ageri dira, makilak eskuan, pastoralaren martxaren konpasean, oin bat eta bestea txandaka lurraren gainean bermatuz, baina abiatu aurretik bezala, alegia, geldi, eta musikarik gabe.

Aretoaren sarrerari begira, hatza luzatuko du bertako batek halako batean. Hiru lagun datoz, motxila bizkarrean, aulkien arteko korridorean barrena. Agertokira igotzeko mailetara heltzen direnean, abegi egileak koruan hasiko dira errezitatzen; ahots bakarrez, eta ondo ulertzeko moduan.

Antzerkian zehar erabiliko dituzten hainbat gauza dakarte motxiletan gordeta:

1. motxilan: hiru poster, bakoitza bere kartoizko tutuan gordeta: a) Euskal Autonomi Elkargoko armarriak biltzen dituena, b) Iparraldekoak, eta c) Nafarroakoa; atzeko aldean belkroz hornituta daude, behar denean eta behar den tokian itsatsi ahal izateko.

2. motxilan: Euskal Selektzioaren aldeko elastikoren bat, eta beste zenbait, agertu ahala deskribatuko direnak; pilotariak erabili ohi duten gerriko bat; mantal zuri bat...

3. motxilan: Euskal Herriko mapa tolesgarri handi bat; arkatz markatzaile batzuk; tatxetak; hainbat dokumentu, libururen bat, atril bat; Espainia, Frantzia eta Nafarroako bandera txiki batzuk, ikurrin batzuk, mapa baten gainean iltzatu litezkeenak...

Oholtzaren gainean, erabiltzeko prest, esku-eskailera bat eta bizpahiru aulki ikus daitezke, hala

nola zurezko mahai zabal bat. Erdi-erdian jarrita dago, eta ohi baino motzagoak dauzka hankak.

Antzerki honek, noski, ez du harrapatzen euskal herrialdeetako aniztasuna bere osoan; askoz ere adibide eta berezitasun gehiago jaso beharko lituzke horretarako. Euskal Autonomi Erkidegoaren ikuspuntuak agintzen du gehienbat lan honetan, nahiz Nafarroa eta Iparraldea ere barne hartu; beraz, inon ematekotan, bertako ezaugarrietara egokitu beharra legoke aldez aurretik. Ez luke, hala ere, aldaketa handirik behar izango, baina komenigarria izan liteke hizkera, egoera hala nola erakunde ofizial desberdinak kontuan hartzea.

Pertsonaiak:

Urruzola: otsagitarra

Manterola: mundakarra

Pagola: saratarra

Korua: zortzi lagun

1. ATALA

Korua.- Aurrera! Zein zarete? Zatozte gora.

Urruzola.- Ez dugu izen jakirik, baina behin mugalariak al ginen galdetu zigun mugazain batek, eta izen horrekin gelditu gara.

Korua.- Mugalariak?

Pagola.- Mugarik Gabeko Mugalariak.

Urruzola.- Abiatu berriak gara, oraindik ez dugu denbora luzerik eman elkarrekin, baina gero eta jende gehiago ari zaigu biltzen.

Korua.- Nondik etorri zarete?

Pagola.- Ni Saratik.

Manterola.- Ni Mundakatik.

Urruzola.- Ni Otsagitik.

Korua.- Zer zabilzate inguru hauetan?

Urruzola.- Udaletxeak miatzen ari gara: artxiboak, erregistroak, fitxategiak ...

Manterola.- Erroldak aztertzen ari gara: estatistikak,

katastroak, ondareak...

Pagola.- Lurraldeak gainbegiratzen ari gara: mugak, zedarriak, zirkulazio-seinaleak...

Korua.- Jakin al liteke zein diren zuen asmoak?

Manterola.- Nola, ez; azken batean hori da gure bisitaren arrazoia: aurkitu dugunaren berri eman nahi dizuegu, ze ondorioetara ailegatu garen, zer egin nahi dugun...

Korua.- Ongi etorri! Entzuteko prest gaude. Zer esan nahi diguzue?

Urruzola.- Hara; lehenik eta behin gurea ez dela herri bat; ez, behintzat, zeharo.

Korua.- Zer da, ba, orduan?

Pagola.- Izan liteke puzzle bat.

Urruzola.- Edo buruhauskailu bat.

Manterola.- Edo ekuazio algebraiko bat.

(Ailegatu berriek dagoeneko lurraren gainean utzi dituzte motxilak eta, Urruzolak, berea ireki ondoren, hainbat dokumentu aterako ditu barrutik. Arretaz erreparatuko die; agiri jakin baten bila dabil dirudienez.)

Korua.- Ezin al duzue argiago hitz egin?

Urruzola.- Bai, noski. Oso labur esanda: ez genuke anabasa hau utzi nahi hurrengo belaunaldien erantzukizun. Alegia, gure iragana eguneratu nahi dugu, harrera egin nahi diogu gure etorkizunari eta egokitu zaigun orainaldia bizi nahi dugu ganoraz.

Korua.- Zer esan nahi duzue horrekin?

Pagola.- Besteak beste, Euskal Herria, bakarra izanik ere, barne-mugak dauzkala, eta hirutan gaudela zatituta: alde batetik, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia; bestetik Nafarroa Behera, Lapurdi eta Zuberoa; eta azkenik, Nafarroa.

Urruzola.- Alegia, Euskal Herria, bakarra izanik ere, hiru erkidego edo elkargotan gaudela banatuta: alde batetik, Euskal Hirigune Elkargoa; bestetik, Euskal Autonomi Erkidegoa; eta ondoren, Nafarroako Foru Erkidegoa.

Manterola.- Are gehiago, Euskal Herrian, bakarra izanik ere, guk dakigula behintzat, bost polizia mota badabiltza barrandan: guardia zibilak, polizia nazionalak, CRSak, ertzainak eta Nafarroako foralak.

Korua.- Hainbeste?

Urruzola.- Edo gehiago..., baina batzuek uste dute, hala ere, dena ondo dagoela dagoen bezala, eta beste edozein aukera okerragoa izan litekeela.

Pagola.- Gu, jakina, ez gara iritsi berekoak, ez dugu hala uste, ezta gutxiago ere, eta ez gaude prest orain arteko katramila honen aurrean tripak jaten egoteko ezer egin gabe.

Manterola.- Uste dugu oinarrizko hainbat kontutan denon iritzia ezagutu behar dugula; hala gehiengoarena, nola gutxiengoarena, eta denon eskubideak errespetatu.

Urruzola.- Azken batean, denon artean erabakitzen ez badugu, zeinek erabakitzen du?

Pagola.- Ez dago esan beharrik ere; dena, orain arte bezala, ondo dagoela uste duenak.

Manterola.- Are zehatzago esatearren, euren aukera beste bat baizik ez dela onartu nahi ez dutenak bihurtzen dira nagusi.

Korua.- ez daukagu erabakitzeko eskubiderik galderak, aldiz, badauzkagu, erruz eta korapilo batzuk ere bai askatzeko baina erabakitzeko eskubiderik, ez nolana ere, ez dugu itxaropenik galdu nahiz eta ez izan burujabe oraindik zeren etorkizun handiko asmoak dauzkagu eta susmo eta beldur batzuk ere bai

baina erabakitzekeo eskubiderik, ez

Manterola.- Hitz egin dezagun, beraz, garbi.
Zeintzuk ari dira guztion ordez erabakitzen?

Pagola.- Frantziarrekin eta espainiarrekin bat datozen euskaldunen bozak.

Urruzola.- Ez dio axola Euskal Herriko gehiengo
edo gutxiengo diren; euskal-nafar-espainiarrak
dira beti irabazle.

Pagola.- Edo euskal-nafar-frantziarrak.

Manterola.- Alegia, herritar espainiar edo
frantziarrak omen direnak beren osotasunean
bilduta.

*(Urruzolak, azkenean, mapa tolesgarri bat
aurkituko du dokumentuen artean, eta pleguz
plegu zabalduko du Pagolaren laguntzarekin.
Manterolak, bitartean, atril bat aterako du bere
motxilatik, eta, zutik jarri ondoren, liburuxka bat
egokituko du gainean: Espainiako Konstituzioa)*

Urruzola.- Mugarik Gabeko Mugalariak ez gaude
prest Frantzia eta Espainiako gehiengoak euskal
gehiengoan gainera daudela onartzeko. Inondik
inora!, eta ez dugu amore emango.

Pagola.- Erabaki asko dauzkagu hartzeko zain, eta

baldin ez badugu erabakitzeko eremu propioa eratzen, herri honek gerora ere buruhaskailuaren antza izango du orain arte izan duen bezala, edo puezlearena edo ekuazio algebraiko batena bestela.

Korua.- Zer dio Espainiako Konstituzioak?

(Atrilaren gaineko liburuxkari erreparatuko dio Urruzolak, eta bila dabilen pasarteak aurkitzen duenean, ozen irakurriko du)

Manterola.- Ea... "Artículo 149: "El estado tiene competencia exclusiva sobre las siguientes materias" (*aparte batean*). Guztira 32 dira, azkenak horrela dio: "Autorización para la convocatoria de consultas populares por vía de referéndum".

Korua.- (Makil-hotsa)

Urruzola.- Ez dute zirrikiturik sikiera utzi. Ondo lotuta utzi nahi izan dute dena badaezpada. Ez dute arriskurik txikiena ere bere gain hartu nahi izan.

(Urruzolak eta Pagolak, esku-eskailera baliatuta, agertokiaren sakonean dagoen panelean egokituko dute mapa tatxetekin josita. Euskal Herrikoa da. Ikuslegoak ikusiko badu, ohiz

*kanpoko tamaina behar du izan; oso handia.
Amaitzen dutenean, Manterolarekin bilduko dira
berriro)*

Urruzola.- Eman dezagun gure lurraldean zentral nuklearrik egon behar ote duen erabaki behar dugula; balio bera eman behar al zaio Espainiako biztanle baten bozari eta hemengoari?

Korua.- Inolaz ere ez!

(Makil-hotsa)

Pagola.- Egin dezagun, mugaren bi aldean arteko harremanak nolakoak izan behar duten deliberatu nahi dugula; pisu bera eman behar al zaio frantziar bati eta euskaldun bati?

Korua.- Ezta pentsatu ere!

(Makil-hotsa)

Urruzola.- Jo dezagun, sardinzarrek Euskal Herritik alde egin behar duten ala ez jakin nahi dugula; eragin bera izan behar al du Albazeteko herritar batek eta Lizarrako batek?

Korua.- Mesedez!

(Makil-hotsa)

Manterola.- Demagun Euskal Herriak enbaxada kultural ekonomiko edo politikoa zabaldu nahi duela Japonian; espainiar edo frantziar baten bozak euskaldunarenak adina indar izan behar al du?

Korua.- Espero dezagun ezetz!

(Makil-hotsa)

Urruzola.- Asmoak asmo eta usteak uste, hala ere, gaur gaurkoz geuk ez dugu geurea erabakitzen, eta gauzak aldatu ezean, gerora ere ez dugu geuk erabakiko.

Pagola.- Mugarik Gabeko Mugalarien arabera, euskal gizartea, lehen bezala orain ere, goitik behera ari dira eraikitzen; gu kontrakoa proposatzera etorri gara, eta berandu baino lehen jarri nahi genuke abian.

Urruzola.- Alegia, behetik hasi beharra dago, eta gorantz hazi; auzo, herri, udal txikietatik abiatu, eta hiri handietara ailegatu arte.

2. ATALA

(Agertokian ez da ezer aldatu. Pagola eta Manterola bi aulki ari dira hurbiltzen taularen erdi aldera)

Pagola.- Esaera zaharrak dioen bezala, “izena duen guztiak badu izana”.

Urruzola.- Beste era batera ere badago esatea.

Korua.- Alegia...

Urruzola.- Izenik ez duenak ez duela izanik.

Korua.- Zer esan nahi duzue horrekin?

Urruzola.- Bada, lehenik eta behin, euskaldun guztiok bilduko gaituen izen ofizialik ere ez daukagula.

Manterola.- Egia esateko, asko ditugu, gehiegi, baina, azken batean, batere izango ez bagenu bezala.

Korua.- ez daukagu izen ofizial bat eta bera autonomiak, erkidegoak, elkargoak eta antzeko izendapenak dauzkagu baina bilduko gaituen izenik, oraindik ez

nolanahi ere, ez dugu itxaropenik galdu
nahiz eta ez izan burujabe
zeren etorkizun handiko asmoak dauzkagu
eta susmo eta beldur batzuk ere bai
baina izen ofizialik, ez, oraindik

Pagola.- Guri, esate baterako, Euskal Hirigune
Elkargoa esaten digute azken aldian.

Manterola.- Guri, berriz, Euskal Autonomi
Erkidegoa.

Urruzola.- Guri, Nafarroako Foru Erkidegoa.

Manterola.- Horrela daude gauzak, baina, gainera,
beste aldaera batzuk ere ateratzen dira irratietan,
edo telebistetan, edo egunkarietan...

Korua.- Esate baterako?

Pagola.- Euskadi.

Urruzola.- Basque Country.

Manterola.- Vasconia.

Korua.- Orduan..., zer gara gu?

Korua1.- Herrialde bat?

Korua2.- Erkidego bat?

Korua3.- Nazio bat?

Korua4.- Aberri bat?

Manterola.- Euskaldun guztiok ez gatoz bat, baina zer uste du herriaren gehiengoak? Zer uste du gutxiengoak? Hauteskundeetan ez dira horrelako galderak egiten... Auskalo zergatik!

Urruzola.- Oinarrizko ezaugarriak ere korapilo bihurtu zaizkigu. Euskaldun guztiek ez dute gauza bera buruan Euskal Herria aipatzen dutenean.

Pagola.- Mugaren bestaldean, adibidez, zazpi probintziak izan litezke ...

Urruzola.- ...baina baita Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoa bakarrik.

Manterola.- Euskal Autonomi Erkidegoan zazpi probintziak izan litezke,

Pagola.- baina baita Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa bakarrik.

Urruzola.- Nafarroan, berriz, denetarik badugu: batzuen arabera Euskal Autonomi Erkidegoko hiru probintziak dira, edo Iparraldeko hiruak, edo zazpiak bat. Are gehiago, nafar batzuen ustez Nafarroa Euskal Herria da, edo Euskal

Herria Nafarroa; eta, beste batzuen ustez, aldiz, ez bata eta ez bestea.

Korua.- Eta ezin al dugu Euskal Herriarekin ere Euskara batuarekin bezala egin? Alegia, lurralde bakoitzaren bereizgarriei eutsi, baina enbor bera oinarri?

(Makil-hotsa)

Pagola.- Agintaritza gailurretatik ailegatzen zaizkigun mezuek, berriz, ez dute zalantzarik uzten: Euskal Herria bere horretan ez da existitzen; puzzle bat da, eta hiru pieza dauzka.

Manterola.- Euskadi.

(Makil-hotsa)

Urruzola.- Nafarroa.

(Makil-hotsa)

Manterola.- Eta Iparraldea.

(Makil-hotsa)

Pagola.- Iparraldea? (*Manterolari kargu hartzen diola*) Nongo iparraldea? Zeren iparraldea? Euskadi zer da orduan? Hego-Mendebaldea? Eta Nafarroa? Hego-Ekialdea?

(Orainoan, kartel bat ateratzen du Pagolak kartoizko tutu batetik eta, zabaldu ondoren, koruko partaideei erakusten die)

Pagola.- Orain dela gutxi, Hegoaldeko hiri batean egun pasa genbiltzala, kartel harrigarri bat ikusi genuen busari itxoiteko aterpearen kristalean. Adierazgarria iruditu zitzaigun, eta *(lapurraren keinua egin eta gero)* ezin izan genion tentaziori eutsi.

(Aipatutako kartela zabaldu, eta koruko kideei erakutsiko die. Interneten bidez ikus liteke)

Manterola.- Hara!: "Euskadi, culinary nation". Azkenean badakigu zer garen eta nor garen.

Pagola.- Iragan udan, japoniar bat ezagutu nuen oporretan. Orduak luze bihurtzen dira trenean, eta holakoetan sortu ohi diren elkarrizketa txepelean jardun genuen denbora pasa.

(Urruzola, jertsearen botoiak askatu, eta elastikoaren gainean daraman eguzki gorria utziko du agerian. Aurrez aurre eseriko dira bera eta Manterola bakoitza bere aulkian, eta burua mugituko dute noizean behin bagoi barruan baleude bezala)

Urruzola.- Neuk *(jantzita daukan elastikoari begiratzen dio)* japoniarraren papera egingo dut.

Manterola.- Kontua da batek ez duela beti bere sorterriari buruzko prestakuntza ikastaro bat emateko gogorik izaten, (*azalpenak eman bitartean, koruari begiratzen dio*) eta are gutxiago bere solaskideak begiak urratuak badauzka eta eguzki gorri bat baldin badarama bularrean; beraz, ...

Urruzola.- Espainiarra?

Manterola.- Ez pentsa, ondo pentsatu behar izaten da erantzuna (*berriro koruko kideei begira*); neurtu egin behar izaten dira hitzak, gogoz kontrako albo-kalteak saihestu nahi izanez gero: baietz esaten baduzu, gehienetan ez dago arazorik; ezetz esaten baduzu, aldiz, ikastaro bat eman behar izango diozu seguru asko zure solaskideari.

Korua.- Horrela, bada...

Manterola.- Bai, (*erantzungo dio Urruzolari*) erantzun nion.

(*Makil-hotsa*)

Urruzola.- Zein lekutakoa?

Manterola.- Iparraldekoa.

Urruzola.- Kantauriko itsasoa!

Manterola.- Bai; itsasertzean bizi naiz.

Urruzola.- Santanderren?

Manterola.- Ez, (*etsita*); Mundakan.

Urruzola.- Eta zergatik ez duzu esaten euskalduna zarela?

(Etsipen-keinua antzematen zaio Pagolari eta, berehala, jatorrizko eginkizunetara itzuliko dira bata eta bestea)

Manterola.- Orain dela gutxi, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza Sailera hurbildu ginen. Ez genuen gastronomia nazionalari buruzko kontua aipatu, baina, tira, gure harridura erakutsi nahi izan genien, nolana ere, Euskal Herria izendatzeko orduan aurkitu dugun nahaste-borrastearen aurrean.

Korua.- Zer diote gure agintariek?

Pagola.- Egon pixka batean. Oraintxe emango dizuegu bertako funtzionario batekin izan genuen elkarriketaren berri.

(Oraingoan, Pagolak egingo du funtzionarioaren lana; horrela, bada, jertsearen kremailea irekiko du goitik behera, eta Euskal Autonomi

*Erkidegoaren armarrria geldituko zaio agerian
elastikoaren gainean)*

Pagola.- Egun on, nondik zatozte?

Manterola.- Gipuzkoatik.

Urruzola.- Nafarroatik.

Pagola.- Zer egin dezaket zuen alde?

*Manterola.- Kontua da ez dugula izen ofizial bat
eta bakarra zazpi probintziak biltzen gaituena,
eta euskaldunei galdetu nahi genieke gabezia
horri buruz.*

*Pagola.- Ez dakizue ondo nolako tripako mina
eragiten didan ezezkoa eman beharrak, baina
tamalez ez da zilegi. Eskakizun hori ez dago
gure esku.*

Manterola.- Zer dio Espainiako Konstituzioak?

*(Espainiako Konstituzioa atrilaren gainean dago
oraindik, eta funtzionarioak eskuetan hartuko du.
Isilpean irakurri eta gero, ondoko laburpena
egingo die ordezkari)*

*Pagola.- Mundu guztiak aspaldi dakiena: Nafarroa
ez dela Euskadi; Euskadi ez dela Nafarroa, eta*

Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoa Frantzian daudela.

(Makil-hotsa)

Urruzola.- Edonora joateko prest gaude. Zein atetan jo beharko genuke? Zeini galdetu behar diogu?

Pagola.- Alferrik ari zarete.

Manterola.- Ezin al da ezer egin?

Pagola.- Ezer ez eta, gainera, ez dago espainiarren esku bakarrik; hiru probintzia Frantziako Administrazio barruan daude. Arazo hori Espainiako Konstituziotik kanpo dago. Ez nuke, hala ere, zuen asmorik zapuztu nahi, baina, barkatu, zertarako behar duzue zuek izen bakarra Euskadi, Nafarroa eta Iparraldea izendatzeko?

Urruzola.- *(Aurreko eginkizunetara itzulita)* Ez zuen erantzunik merezi, eta isilik iraun genuen, baina kopeta zimurtu eta bekozko gelditu zaitzagun begira, esanez bezala:

Manterola.- Zertan zabiltzate?

Urruzola.- Noraino iritsi nahi duzue?

Pagola.- Ze asmo dabilkizue buru barruan?

(Pagolak jertsea itxiko du atzera))

Manterola.- Oraingoan, guri egin zitzaigun tripako mina, baina, zer esan behar genion: "izena duen guztiak baduela izana?"

Pagola.- "Izenik ez duenak ez duela izanik?"

Urruzola.- Munduko herritarrak omen dira batzuk, baina guri Mugarik Gabeko Mugalariak izatea egokitu zaigu.

Pagola.- Eta zer erantzun jakin nahi dugu nongoak garen galdetzen digutenean

.

3.- ATALA

(Euskal Herriko mapari begira daude hirurak)

Pagola.- Zorionez badago zerbait gehienok elkarrekin biltzen gaituena; adostasun zabalagoa pizten duena gure artean.

Urruzola.- Mugen guztien gainetik...

Manterola.- Autonomi erkidego eta elkargo guztien gainetik...

Pagola.- Aukera politiko guztien gainetik...

Korua.- "Euskadi, culinary nation"?

Pagola.- Ez gabiltza urruti, baina, tira, ez da hori; euskara dugu lokarri.

Urruzola.- Egia da lurraren gainean bizi garela, baina ez bakarrik; hizkuntzaren barruan ere bizi gara.

Pagola.- European iraun dirauen aztarren neolitiko bakarra izan arren, oraindik ere Euskal Herriko probintzia guztietan hitz egiten da gutxi edo gehiago, eta, gainera, denetan; gaztelania edo frantsesa ez bezala.

Manterola.- Asko dira euskara aldarrikatzen dutenak nahiz hitz egiten jakin ez. Are gehiago Osatzen dugun komunitatearen ezaugarri nagusitzat daukagu, eta uste dugu, gainera, hurrengo belaunaldien arteko lotura izan behar duela.

Urruzola.- Izugarri maite dugu gure hizkuntza...

Pagola.- ...baina gutxi erabiltzen dugu, hala ere.

Urruzola.- Aitzakiak era askotakoak izan litezke, adibidez:

Manterola.- Oye, por mí no os paséis al castellano; no os podéis hacer a la idea de lo que me gusta oíros hablar en euskera...

Urruzola.- No sabéis lo que me joroba cada vez que os pasáis al castellano, solo porque yo no sepa euskera...

Pagola.- Yo de pequeño solo hablaba en euskera, pero nosotros no hemos tenido la suerte que habéis tenido vosotros...

Urruzola.- Azkenean, betikoa...

Manterola.- A ver, todos sabemos castellano, ¿no?, ¿Para qué vamos a complicar las cosas?

Pagola.- Euskaraz ez dakiten askok, nolana ere, Euskararen aldeko jarrera daukate, baina, zoritxarrez, dakigunon gainean uzten dute euren konpromisoa.

Urruzola.- Beste batzuek, berriz, badakite, baina ez dute erabiltzen, edo oso gutxitan erabiltzen dute, eta hitz egiten dugunon ardurapean uzten dute euren erantzukizuna.

Korua.- Zer esan nahi duzue?

(Manterolak, erantzuten hasi aurretik, mantal zuri bat aterako du bere motxilatik. Zimurrak nola hala txukundu, eta jantzi ondoren, Urruzolarengana hurbilduko da)

Manterola.- Zaudete. Oraintsu gertatutako pasadizo bat kontatuko dizuegu. Ni neu izan nintzen lekuko, eta adibide egokia izan liteke egoeraren beltzari tankera emateko. Auzoko botikan gertatu zitzaidan.

(Urruzolak bezeroaren papera egingo du)

Urruzola.- Aspirina kaxa bat, mesedez.

Manterola.- ¿Como dice?

Urruzola.- Aspirina kaxa bat.

Manterola.- Lo siento, no hablo euskera.

Urruzola.- Una caja de aspirinas.

(Urruzola, une batez, jatorrizko paperera bueltatuko da)

Urruzola.- Aterkia ahaztu zitzaidan botikan. Handik gutxira euria hasi zuen, eta berehala itzuli nintzen bila. Botikaria hurrengo bezeroarekin ari zen hizketan. Oraintxe agertuko dizuegu bion arteko elkarrizketa.

(Aurreko solasera itzuliko dira hirurak; beraz, Manterolak botikariarena egingo du eta Pagolak bigarren bezeroarena. Une horretan, Urruzola sartuko da berriro botikan)

Pagola.- Oye, menos mal que los euskaldunes son bilingües.

Manterola.- ¿Te imaginas que no supiesen hablar en castellano?

(Manterolak, orduan, mantal zuria erantzi, eta hirurak jatorrizko eginkizunetara itzuliko dira)

Manterola.- Entzun... Ematen du Euskal Herria bitan banatuta dagoela: alegia, euskaldun eta erdaldunen artean. Ez da zehazki horrela. Kontua

da elebidunak garela batzuk, eta besteak, aldiz, erdaldun soilak.

Korua.- Ez al da gauza bera?

Manterola.- Ezta gutxiago ere!

Urruzola.- Kontua da euskaraz hitz egiten dugun guztiok dakigula gaztelaniaz.

Pagola.- Edo frantsesez.

Urruzola.- Eta euskaraz dakigun guztiok hitz egiten dugula gaztelaniaz.

Pagola.- Edo frantsesez.

Urruzola.- Alegia, nire buruaren itzultzaile bihurtu behar izan nuela botikariak atendituko banindu.

Korua.- Zer esaten du Gernikako Estatutuak?

(Manterola atrilera hurbilduko da, eta dokumentu batzuk utziko ditu gainean, irakurtzeko prest)

Manterola.- Hemen esaten duenez, euskara ofiziala da.

Urruzola.- Bai, eta gaztelania ere bai, baina euskara

ez da betebeharreko arau ofiziala, eta gaztelania bai.

(Makil-hotsa)

Korua.- Eta Nafarroako Foru Hobekuntzarako legean?

(Urruzolak hartuko du txanda, eta atrilaren aurrean jarriko da Manterolaren ordez)

Urruzola.- Hemen ere euskara ofiziala dela esaten du, ez, ordea, jakin beharreko hizkuntza.

Manterola.- Nafarroa osoan?

Urruzola.- Ez; lurraldearen ipar herenean bakarrik. Gaztelania, aldiz, Nafarroa osoan da jakin beharrekoa.

(Makil-hotsa)

Manterola.- Are gehiago, inon ez da legea betetzen; ez bada, behintzat, agintzen duenaren oso azpitik; ez Nafarroako Foru Erkidegoan, ez Euskal Autonomi Erkidegoan, eta ez inon.

(Makil-hotsa)

Korua.- Eta Lapurdi, Nafarroa Beherean eta Zuberoan?

Pagola.- Iparraldean ez dago koplarik; frantsesa da hizkuntz ofizial bakarra.

(Makil-hotsa)

Korua.- ez dugu hizkuntz politika bat eta bera idazleak eta kantariak badauzkagu gramatika eta hiztegia batzuk ere bai baina ez daukagu behar beste hiztun nolana ere, ez dugu itxaropenik galdu nahiz eta ez garen burujabe oraindik zeren etorkizun handiko asmoak dauzkagu eta susmo eta beldur batzuk ere bai baina Euskal Herri euskaldunik, ez

Urruzola.- Euskara euskaldun guztioi dagokigu; are gehiago, euskaldunoi bakarrik.

Korua.- Euskal Herritik kanpo ez da euskararik hitz egiten.

Manterola.- Alabaina, gure hizkuntz politika ez dugu euskaldunon artean erabakitzen erabat.

Korua.- Espainiako eta Frantziako konstituzioek ezarritako mugapean gaude harrapatuta.

(Makil-hotsa)

Urruzola.- Euskaldunok gure kabuz erabaki ahal

izango bagenu, gaur egun indarrean dauden irizpideak onartuko al genituzke?

Urruzola.- Oraindik ez dugu euskararen etorkizuna zeharo bideratu. Oztopo eta debekurik ez da sekula falta izan; etsipenik eta zabarkeriarik ere ez eta, bitartean, euskaldun oso bihurtzeko ezinean dabilta belaunaldi berriak.

Pagola.- Euskaldun batzuek euskaraz hitz egiten dute etxean, baina kalean frantsesez.

Urruzola.- Euskaldun batzuek euskaraz ikasten dute eskolan, baina gaztelaniaz hitz egiten dute lagunekin.

Pagola.- Euskaldun batzuek euskaraz entzuten dute irratia, baina telebista frantsesez.

Manterola.- Euskaldun batzuek euskaraz irakurtzen dute egunkaria, baina gaztelaniaz ibiltzen dira sare sozialetan.

Urruzola.- Ez gara euskaldunak zeharo.

Pagola.- Euskal Herria deitzen diogu, baina ez al du Babelgo Dorrea ematen?

4. ATALA

Pagola.- Urteak joan urteak etorri, selekzioaren matrakarekin gabiltza oraindik ere. Ez dirudi beste munduko ezer eskatzen ari garenik, baina alferrik. Ukatu egiten zaigu behin eta berriz.

Manterola.- Eragozpenak jartzen dizkigute bazter guztietan. Adibidez...

(Egunkari bat zabaldu, eta irakurri egingo du)

Urruzola.- Euskal Pilotako Mundu Txapelketa; Mexiko 2014.

Pagola.- Frantziak, 11 domina

Urruzola.- Espainiak, 14.

Korua.- Eta euskaldunak?

Pagola.- Batere ez.

(Maki-hotsa)

Korua.- Nola liteke?

Pagola.- Orain dela hilabete batzuk, Espainiako Kultura Ministerioan izan ginen, Kiroletako Zuzendaritza Nazionalean galdezka.

Korua.- Zer zioten?

Pagola.- Egon pixka batean. Oraintxe agertuko dizuegu bertako idazkari batekin izan genuen elkarrizketa.

(Oraingoan, hirurek erakutsiko dituzte jertse azpian dauzkaten elastikoak. Urruzolak eta Manterolak Euskal selekzioarena daramate, eta Pagolak Espainiako Erresumaren armarrria erakusten duen bat)

Pagola.- Nondik zatozte?

Manterola.- Ni Euskal Autonomia Erkidegotik.

Pagola.- Zu ere bai?

Urruzola.- Ez. Ni Nafarroako Foru Erkidegotik.

Pagola.- Zein da zuen bisitaren arrazoia?

Urruzola.- Aspaldiko kontu batekin gatoz. Euskal Herriko jendeak nazio arteko kirol lehiaketetan hartu nahi du parte modu ofizialean; gero eta gazte gehiago dabil kalean barrena selekzioaren elastikoarekin jantzita.

Pagola.- Oker ez banago, Euskal Autonomia Erkidegoan baduzue baten bat...

Manterola.- Zein?

Pagola.- Soka-tira taldea, esaterako.

Urruzola.- Eta futbola?

Manterola.- Eta errugbia?

Urruzola.- Eta pilota?

(Pagola liburuxka bat eskuratzen du mahai gainetik eta, pixka batean bila ibili eta gero, atrilaren gainean jarriko du. Irakurraldi labur baten ondoren, Urruzolak eta Manterolak egindako galderei erantzungo die).

Pagola.- Ate hori itxita dago.

(Makil-hotsa)

Pagola.- Irtenbidea ez dago gure esku. 1990. urtean atera zen kirolari buruzko legea, eta nazio arteko ordezkaritza bakarra onartzen du Espainia barruan.

Manterola.- Eta soka-tira?

Pagola.- Ez da gauza bera. Ondo dakizuen bezala, gure artean Euskal Autonomi Erkidegoa da kirol horretan lehiatzen den bakarra.

Manterola.- Eman dezagun horrela dela, baina, zer egin dezakegu eskubide hori gureganatzeko? Azken batean, legeak aldatzeko daude, baldin herritarren iritziarekin bat ez badatoz...

Pagola.- Lehenik eta behin ahalegindu beharko zenukete, Nafarroako edo Euskal Herriko edo dena delako ordezkari bat kontu hau Espainiako Legebiltzarrera eraman dezan. Ez zait iruditzen, nolana ere, gehiengoak aldeko boza emango lukeenik eta, noski, legeak diputatuek onartu behar izaten dituzte.

Manterola.- Euskal Herrian, alabaina, edozein egon liteke prest eskari horren alde sinatzeko.

Pagola.- Espainiaren burujabetza, ordea, Espainia osoari dagokio; beraz, zuek diozuen egia balitz ere, ez legoke zer eginik. Alferrik duzue saiatzea.

(Makil-hotsa)

Urruzola.- Eta euskal pilota?

Pagola.- Oso arazo korapilatsua da.

Urruzola.- Ez dirudi, pilotaren kasu honetan ere, Espainiako Erresumaren gainerako lekuetan badagoenik kontuan hartzeko moduko kirol talderik...

Pagola.- Egia da, baina Frantzian, bai.

Manterola.- Ez ahaztu munduko beste herrialde batzuetan ere badaudela nazio arteko soka-tira taldeak, esate baterako, Txinako Herri Errepublikan, Hego Korean edo Herri Beheretan.

Pagola.- Jakinaren gainean nago. Badakit.

Urruzola.- Orduan?

(Makil-hotsa)

Pagola.- Ez nuke, zuen asmorik zapuztu nahi, baina, barkatu, zertarako behar duzue zuek Euskal Herriko selekziorik?

(Espainiako Kirol Zuzendaritza utzi, eta, jertseak itxita, jatorrizko eginkizunetara itzuliko dira hirurak)

Urruzola.- Ez zuen erantzunik merezi eta isilik iraun genuen, baina kopeta zimurtu eta bekozko gelditu zitzaigun begira, esanez bezala:

Manterola.- Zertan zabilzate?

(Makil-hotsa)

Urruzola.- Noraino iritsi nahi duzue?

(Makil-hotsa)

Pagola.- Ze asmo dabilkizue buruan barruan?

(Makil-hotsa)

Korua.- ez daukagu Euskal Selekziorik oraindik
kirolariak, ordea, erruz eta bikainak
elastikoak eta zaleak ere badauzkagu
baina ordezkaturko gaituen selekziorik, ez
nolanahi ere, ez dugu itxaropenik galdu
nahiz eta ez garen burujabe
zeren etorkizun handiko asmoak dauzkagu
eta susmo eta beldur batzuk ere bai
baina euskal selekziorik, oraindik, ez

Pagola.- Beste adibide bat; ez da hainbeste denbora
gertatu zela. Nazio arteko Pilota Lehiaketa;
Bartzelona 2019. Urte horretan Bixintxo Bilbaok
eta Peio Larraldeak irabazi zuten trinketea.

Korua.- Nongoak dira?

Pagola.- Biak lapurtarrak, baina goazen pausoz
pauso, zeren, arauaren aitzakian, normalak balira
bezala jasan behar izaten ditugu laido
iraingarrienak gutxien espero dugunean.

Pagola.- Oraingo honetan Bixintxoren papera
egingo dut.

Manterola.- Ni Euskal Pilotako Nazio Arteko Federazioaren epaimahaikidea izango naiz.

(Pagola, gerrikoa jantzita, podiumera, hots mahai gainera igoko da irabazleen garaikurra jasotzera. Ikurrina darama bi eskuekin eutsita, eta muzin egingo dio agintariak. Urruzola bazter batean geldituko da begira)

Korua.- (Makil-hotsa)

Manterola.- Ez dugu politika arazoetan nahastu nahi, baina zigortu beharra daukagu zure jokabidea. Araua hautsi duzu, eta kontu larria da.

(Makil-hotsa)

Pagola.- Ikurrina da; euskalduna naiz ...

Manterola.- Bejondeizula..., baina zu hiritar frantsesa zara; beraz, bandera bat besterik ezin duzu atera: Frantziako Errepublikakoa.

Urruzola.- Ederki gaude. Frantziako Errepublika eta Espainiako Monarkia; a zer nolako bi pareta!

Korua.- (Makil-hotsa)

Urruzola.- Euskal pilotako selekzioa ez da zilegi, baina pilotari euskaldunek irabazten dituzte

domina gehienak, eta, jakima, bandera frantsesa edo espainiarra eraman behar dute ezaugarri. Ikurrina ateratzen badute, edozein lehiaketatan parte hartzeko aukera gal dezakete; hamabi hilabetez kasu honetan.

(Makil-hotsa)

Pagola.- Nire aitona Ondarrukoa zen. 1936ko gerra garaian zeharkatu behar izan zuen muga. Nire familia, handik aurrera, Ziburun bizi izan da; eta ni ere bertan bizi naiz oraindik. Euskalduna naiz, eta nire bandera ikurrina da.

Manterola.- Zure arbasoen historiak ez digu axola; beraz, hamabi hilabete eman beharko dituzu pilota-partidetan parte hartu gabe.

(Makil-hotsa)

(Pagola, gerrikoa erantzi, eta Manterolarekin batera, jatorrizko eginkizunetara bueltatuko da)

Urruzola.- Orain dela ez hainbeste denbora, ikurrina zintzilikatzen harrapatzen zutena, tiroa bat jaso zezakeen, edo kartzelan sartzen zuten bestela, edo gutxienez, isuna ordaindu behar izaten zuen.

Manterola.- Urte batzuk geroago, diktadorea hil

ondoren, ofiziala bihurtu zen, eta handik aurrera, erakunde guztietan zabaldu zuten, baita espetxeetan ere, baina, jakina, Espainiako banderaren itzalpean.

Pagola.- Orain, berriz, nazio arteko lehiaketa batean irabazle gertatzen bazara, eta garaikurra jasotzerakoan ikurrina ateratzen baduzu, urtebeteko zigorra ematen dizute, eta epe horretan jokoz kanpo uzten zaituzte.

(Makil-hotsa)

Pagola.- Ez dakit soka-tira ez ote zaidan gehiago komeni...

5. ATALA

(Esku-eskaileran igota daude Urruzola ezker-eskuin. Manterola. Mapa paneletik askatu eta, atzekoz aurrera jarri ondoren, lehengo lekuan iltzatuko dute ostera. Arkatz markatzaile beltz bat aterako du bietako batek sakelatik, eta Euskal Autonomi Erkidegoko ikurraren ingurua marraztuko du; alegia, lau kuartelak, baina hutsik, probintzietako armarririk gabe)

Manterola.- Auskalo zenbat ofizio, ordainagiri, iragarki aztertu ditugun...

Urruzola.- Auskalo zenbat akta, dekretu, ziurtagiri...

Manterola.- Auskalo zenbat idazpuru, epigrafe, errotulu...

(Oholtzaren aurreko aldean dago Pagola bere motxilaren ondoan. Eskua sartu, eta kartoizko hiru tutu hartuko ditu barrutik. Banan bana ireki, eta poster bat, biribildua, aterako du edukiontzi bakoitzetik)

Pagola.- Agiri-meta zenbatezin horretan, jakina, aipamena merezi duten bitxikeria ugari aurkitu ditugu, baina denen artean badago ikur bat izugarri harritu gaituena.

(Atera duen lehenengo posterrean Nafarroako armarría ageri da; bigarreanean, Iparraldeko hiru probintzietakoak; eta hirugarreanean, Hegoaldekoak. Atzeko aldean belkroz hornituta daude, panelaren gainean itsatsi ahal izateko)

Pagola.- Hara; hauxe da.

(Euskal Autonomi Erkidegoari dagokion posterra hartu, eta panelaren gainean itsatsiko du)

Korua.- Eusko Jaurlaritzaren agiri ofizialetan agertzen dena, ezta?

Pagola.- Hori bera

Korua.- Zer du, ba, hain berezia izateko?

(Une horretan, Urruzolak eta Manterolak agertokia utzi, eta panel baten atzean ezkutatu dira arropaz aldatzeko)

Pagola.- Entzun...: ikur horrekin topo egin genuen egun berean agerraldi bat bururatu zitzaigun, eta oraintxe bertan erakutsiko dizuegu.

(Makil-hotsa)

Pagola.- Armarrí ofizial honek badu zer ikusirik

"zazpiak bat" ikurrarekin, eta XIX. mendeko bi euskal aitzindari atera zitzaizkigun solasaldiaren harian.

(Makil-hotsa)

Pagola.- Ezin izan diogu tentazioari eutsi, eta hona ekarri nahi izan ditugu biak Euskal Autonomi Erkidegoaren ikur hau komentatzeko.

(Urruzola eta Manterola ezkutalekutik atera, eta Pagolarekin bilduko dira berriz. XVIII. mendean bezala jantzita datoz. Manterolak Agosti Xahoren papera egingo du, eta Urruzolak Jean de Jaurgainena)

Manterola.- Agosti Xaho dut izena, eta Zuberoan sortu nintzen 1811. urtean. Neuk aldarrikatu nuen lehen aldiz zazpi probintziaz osatutako Euskal Errepublika Federala.

Pagola.- Azalpen gehiago behar izanez gero, Agosti Xahok (*Pagolari begiratzen dio*) garai hartan L´Ariel aldizkarian argitaratu zuen artikulua kontsulta dezakezue.

Urruzola.- Nire izena Jean de Jaurgain da, eta neu ere Zuberoan jaio nintzen, 1842. urtean. Neuk egindako kartel batean agertu zen lehen aldiz "zazpiak bat" esaten zaion armarrria.

Pagola.- 1897. urtean Donibane Lohitzunen bildutako Congr s de Fet s de la Tradition Basque ekitaldia iragartzeko atera zuen.

(Itsatsi berria dagoen posterrari erreparatzen dio Urruzolak, eta berarekin harrituta, hurbildu egingo zaio)

Urruzola.- Zer da hau? Hau ez da nik egindako armarria!

Pagola.- Ez erabat, baina badauka zer ikusirik.

(Urrats pare bat egiten dute Urruzolak eta Manterolak atzera armarria hobeto ikusteko)

Pagola.- Ehun urte eta gehiago badira lehen aldiz argitaratu zela, baina oraindik ere ez dauka izaera ofizialik.

Manterola.- Horrek esan nahi du gure aldarri haiek, nahiz zilegi eta zentzuzkoak izan..., ez direla oraindik ere gauzatu?

Pagola.- Ez. "zazpiak bat" hura puskatuta dago zeharo; Euskal Telebistako eguraldiaren mapa bezala. Aurreko hau Araba, Bizkaia eta Gipuzkoari dagokion ikurra da; alegia, Euskal Autonomi Erkidegoarena.

Urruzola.- Eta zertara dator kuartel zuri hori?

Pagola.- Ez da azaltzen erraza, baina entzun: nafar batzuek, lehen ere esan dugu, euskaldunak direla uste dute, beste batzuek ez, eta zer diren ez dakitenak ere badaude; beraz, ez dute erantzuten.

Urruzola.- Eta hori Nafarroan bakarrik gertatzen al da?

Pagola.- Ez, noski; egia esan behar badugu, Euskal Automi Erkidegoan ere badaude horrelakoak eta Ipar Euskal Herrian ere bai. Kontua da, ordea, Euskal Autonomi Erkidegoak, hainbat eztabaida sakon eta hainbat negoziazio korapilatsuren ondoren, kuartel bat hutsik uztea erabaki zuela.

Korua.- Zertarako?

Pagola.- Badaezpada. Ez zuten, dirudienez, amorerik eman nahi erabat, eta leku bat utzi nahi izan zuten etorkizunean gerta zitezkeen aldaketei begira; alegia, inoiz Nafarroak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarekin bat egin nahi izango balu ere.

(Pagolak, orduan, esandakoaren erakusgarri, Euskal Autonomi Erkidegoko posterra kendu, eta Nafarroakoa jarriko du dagokion lekuan)

Urruzola.- Orduan, ongi ulertzen badut, nafarrek ere euskarri bera erabiltzen dute, baina koartel huts bat utzi ordez, hiru uzten dituzte gerora begira, ezta?

Pagola.- Ez da horrela zehazki. Euskal Herri hau, ondo badakizue, puzzle bat da.

(Makil-hotsa)

Korua1.- buruhauskarri bat.

(Orduan, Nafarroako armarrria kenduko du Pagolak, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoakoa jarriko ditu atzera)

Korua2.- Babelgo dorrea.

(Makil-hotsa)

Korua3.- Algebra hutsa.

(Makil-hotsa)

Manterola.- Armarriez ari garela, ikusia daukat Espainiako Lehen Errepublikak ezarri berri duena, eta hark ere lau kuartel dauzka; erresuma bakoitzeko, bat.

(Makil-hotsa)

Pagola.- Oraingo monarkiak ere irudi bera erabiltzen du bere bandera ofizialean: Aragoi, Gaztela, Leon eta Nafarroa.

(Pagolak ez du oraindik aurreko atalaren lehen

Partean erabilitako elastikoa erantzi, hau da, Kiroletako Zuzendaritzan, eta, jertsea irekita, Espainiako armarría erakutsiko die)

Urruzola.- Zergatik Espainiako armarrían, bai? (Pagolaren elastikoari begira); Zergatik Euskal Herrikoan, ez? Nahiago nuke Nafarroako armarrí hori orain dagoen lekutik kendu, eta beste zulo hori (EAEko ikurraren kuartel hutsa begira) betetzeko baliatuko bazenute.

(Makil-hotsa)

Manterola.- Iritziak iritz, hala ere, ez al zen hobe zazpi kuarteleko euskarria erabili, eta Euskal Autonomi Erkidegoaren kasuan lau hutsik utzi, eta Nafarroaren kasuan sei?

(Arkatx markatzailea aterako du Urruzolak sakelatik, eta, zazpi probintziak biltzen dituen ingurua marraztuko du)

Urruzola.- Egunen batean, nork daki, Euskal Errepublikak Federala nagusitu liteke, eta horrela, denontzako lekua izango genuke.

Manterola.- Eta Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoa? Nora galdu dira?

Pagola.- Orain dela gutxi osatu dute elkargo bat:

Euskal Hirigune Elkargoa du izena, baina gaur gaurkoz ez dauka armarri ofizialik.

Urruzola.- Eta zergatik ez dute "zazpiak bat" erabiltzen, eta lau kuartel hutsik uzten?

(Autonomi Elkargoko ikurrak kendu, eta Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoakoak jarriko ditu)

Korua.- Aukera faltan ez gaude, alajaina! Ez al daukazue beste aldaera posibleren bat?

(Urruzola eta Manterola bitartean, panelaren atzean ezkutatuko dira berriro, eta XVIII. mendeko jantziak erantziko dituzte)

Pagola.- Azken bat ere egon liteke.

Korua.- Zein?

(Atal guztiak kendu, eta inguruaren marrazkia uzten du soilik, hutsik; hau da, zazpiak bat, baina armarririk gabe)

Korua.- ez daukagu armarri bat eta bera arranoak dauzkagu, otsoak eta lehoiak dorreak, zubiak eta zuhaitzen bat ere bai baina bilduko gaituen armarririk, ez nolana ere, ez dugu itxaropenik galdu nahiz eta ez garen burujabe

zeren etorkizun handiko asmoak dauzkagu
eta susmo eta beldur batzuk ere bai
baina armarri ofizialik ez, oraindik

*(Urruzola eta Manterola, errezitaldia bukatu
aurretik, ezkutalekutik itzuliko dira)*

Urruzola.- Oinarrizko egitura, behintzat, badaukagu.

Manterola.- Armarriak ere bai

Pagola.- Atal bakoitza bere lekuan jartzea besterik
ez zaigu falta.

6. ATALA

(Orain arte panelean itsatsita zegoen mapa, mahaiaren gainean zabaldu dute. Aurrean daukaten lurraldea aztertzen ari dira eta, tarteka, paperaren zehar iltzatuta dauden banderatzok mugituko dituzte, xake partida jokatzeko ari balira bezala. Espainiakoak dira batzuk, beste batzuk frantsesak eta, bakoitza bere esparruan, ikurrinak eta katedunak ere badaude)

Manterola.- Aspaldi batean, danborrak eta estandarteak erabiltzen ziren guda-zelaietan.

Pagola.- Orduan ez zegoen telefono mugikorrik.

Urruzola.- Edozeinek ere badaki; erasoaren erdian ausartenak ere ezin du bera kasa jokatu; ezta kikilenak ere bere kabuz atzera egin.

Manterola.- Gudalburuek estandarte eta danborren bidez jakinarazten zituzten aginduak.

Urruzola.- Estandarteen abantaila izaten zen urrundik ikusten zirela, nahiz haizeak ziztu egin, eta danborrak ezin baziren entzun.

Manterola.- Danborren abantaila, berriz, urrundik entzuten zirela, nahiz ikusmena lausoa izan, eta

estandarteak ezin baziren antzeman.

Urruzola.- Estandarteek gudarien begiradak bateratzeko baliatzen zituzten.

Manterola.- Danborrak, berriz, gudarien belarriak biltzeko.

Pagola.- Orduetik hona, ordea, denboraren errotak buelta asko eman ditu, eta estandarteak bandera bihurtu dira. Euskal Herrian baditugu bi gutxienez:

Urruzola.- Alde batetik, Nafarroako bandera gorria; kateak barne eta esmeralda berdea erdian.

Manterola.- Eta, bestetik, ikurrina

Urruzola.- Aurrenekoa Nafarroako Erresumaren ikurra da, eta aspaldiko kondairetan irakur litekeenaren arabera, Santxo Azkarrak jaso zuen lehen aldiz XII. mendean.

Manterola.- Bigarrena, Arana Goiri anaiek sortu zuten XIX. mende amaiera aldera, eta diotenez, Bizkaiaren irudi gisa; ez Euskal Herri osoari begira.

Korua.- Eta mugaren bestaldean?

Pagola.- Iparraldeko hiru probintzietan Frantziako bandera besterik ez da ofiziala, eta gainerako

beharrizanetarako ikurrinarekin moldatzen gara.

Manterola.- Hegoaldean, ostera, Euskadiko ikurrina edo Nafarroako bandera ezin dira bakarka jaso; piper-potoarekin batera egon behar dute derrigor.

(Makilak, berriro, lurraren kontra)

Urruzola.- Gainera, biak batera baldin badaude zintzilikatuta, lehentasuna eman behar zaio Espainiako banderari; beraz, jarleku nagusia dagokio eta handiagoa izan behar du.

(Makilak, berriro, lurraren kontra)

Manterola.- Egia da, hala ere, euskaldun guztiak ez gatzela bat bandera aukeratzeko orduan, baina, egia da baita ere, erakunde ofizialetan zabaltzen direnak eta etxeetako balkoietan aldarri egunetan jartzen ditugunak ez direla beti berdinak izaten. Ezta gutxiago ere!

Korua.- ez daukagu bandera ofizial bat eta bera ikurren bat edo beste badaukagu, trapu batzuk eta haizea ere bai, tarteka baina bilduko gaituen banderarik, ez nolana ere, ez dugu itxaropenik galdu nahiz eta ez garen burujabe zeren etorkizun handiko asmoak dauzkagu eta susmo eta beldur batzuk ere bai baina banderarik ez daukagu oraindik

Manterola.- Aspaldiko danborrak, beste alde batetik, ereserki bihurtu dira.

Pagola.- Euskal Herrian bi gutxienez badauzkagu.

Manterola.- Alde batetik, "Gora eta gora".

(Aipamena entzundakoan, aho itxian, Gora eta gora" ereserkiaren lehendabiziko konpasak abesten hasiko da korua)

Manterola.- Oraintsu arte Euzko Alderdi Jeltzaleak bakarrik erabiltzen zuen, baina azken aldian Euskal Autonomi Erkidegoarena bihurtu da.

Urruzola.- Eta beste alde batetik, Nafarroako Gorteen ereserkia.

(Aipamena entzun bezain laster, aho itxian, Nafarroako Gorteen ereserkiaren lehendabiziko konpasak abesten hasiko da korua)

Pagola.- Alabaina, biak ere alferrik.

Korua.- Zergatik?

Pagola.- Argi dago. Ez daukagulako, esate baterako, kirol selekziorik; salbuespenak salbuespen, noski.

(Makil-hotsa)

Urruzola.- Gainera, Zein aukeratuko genuke Euskal Herriko ordezkari? Nafarroako Gorteen ereserkia?, "Gora eta gora"?

Korua.- Txandaka?

Manterola.- Euskaldun jendeok, bitartean, txistu egin genezake, kontsolatzeko besterik ez bada ere, futbol-zelaietan Espainiako himno nazionala entzun bakoitzean.

Korua.- Eta mugaren bestaldean?

Pagola.- Gaur gaurkoz ez daukagu.

(Makil-hotsa)

Urruzola.- Ereserkiak, banderak... Ez zaie aparteko garrantzirik ematen, apaingarri hutsak dirudite, baina, ez pentsa, funtsezko eginkizunak betetzen dituzte.

Korua.- Adibidez?

Manterola.- Mugarriak ezartzeko; lurraldea finkatzeko; populazioa biltzeko...

Urruzola.- Edo beste modu batean esateko: erabakiak hartzeko eremua zeini dagokion zehazteko.

Korua.- Estimatuko genuke argiago azalduko bazenigute.

Pagola.- Bai, noski. ikusten al dituzue Frantziako bandera hauek? Hauxe da Frantziari dagokion erabakitzeko eremua.

Urruzola.- Beste hauek Espainakoak dira; beraz, Espainiari dagokion erabakitzeko eremua erakusten dute.

Korua.- Alegia?

Pagola.- Edozeinek badaki galdera zein eremutan egiten den erabakigarria gertatzen dela erantzun bat edo bestea jasotzeko. Jokalekuak emaitza baldintzatzen du neurri handi batean.

Korua 1.- Ba al dago aurrekaririk?

Korua2.- Egon baldin bada, nola eragin digu?

Korua3.- Ze ondorio atera duzue?

(Urtekari bat dakar Manterolak besapean, eta atrilaren gainean jarriko du)

Manterola.- Espainiako gobernuak 1986an, NATOrri buruzko erreferendumera deitu zuen. Ehuneko hirurogeik hartu zuen parte gutxi

gorabehera, eta gehiengoa bertan jarraitzearen alde atera zen.

Urruzola.- Erreferendum honek, noski, Hego Euskal Herria hartu zuen barne, baina emaitzak hemen guztiz bestelakoak izan ziren.

Manterola.- Euskal Autonomi Erkidegoan %66a hurbildu zen boza ematera, eta %65ek ezezko eman zuen.

Urruzola.- Nafarroan %62k, eta horien artean %56k aurka bozkatu zuten.

Pagola.- (*ironiaz*) Baina erabaki hauek, jakina, espainiar guztien artean hartu behar dira, ezta?

Korua.- (*Makil-hotsa*)

Urruzola.- 1978. urtean, beste erreferendum bat egin zen, Espainiako Konstituzioari buruz, eta parte hartu zuten biztanleak ez ziren erdira ailegatu: ez Euskal Autonomi Erkidegoan ez Nafarroakoan. Ezezko bozak, hala ere, %25etik gertu gelditu ziren.

Manterola.- Espainiako estatuan, alabaina, ia %90ek hartu zuen parte, eta kontrako bozak ez ziren %8ra ailegatu.

Pagola.- Horrela, bada, akabo zalantza guztiak;

(*ironiaz*) herriari eman zaio hitza, eta herriak hitz egin du.

Urruzola.- Ez, ordea, Euskal Herriak.

Manterola.- Euskal Herriak, erabakitzeotan, Espainia eta Frantziaren ondoren erabakitzen du.

Pagola.- Gure artean, ezta hori ere.

(*Makil-hotsa*)

Urruzola.- Nafarroako banderaz inguratutako eremu honetan, Foru Erkidegoko kontuak.

Manterola.- ikurrinez mugatutako beste honetan, berriz, Euskal Autonomi Erkidegoko kontuak.

Korua.- Edozein auzi? Mugarik gabe?

Urruzola.- Esaten digutenez, dena omen da erabakigarri, baina, jakina, ez bada euskaldun guztiei eragiten digun zerbaiti buruz, eta baldin ez badugu euskaldun guztion artean erabakitzen.

(*Makil-hotsa*)

Korua.- Ederki gaude!

7. ATALA

(Euskal Herriko mapa panelaren gainean dago berriro, eta Pagola eta Manterola daude aurrean. Euskal Telebistan eguraldiaren berri emateko erabiltzen duten mapa bera da. Urruzola, bitartean, mahai gaineko gauzen artean ari da zerbaiten bila: alegia, arkatz markatzaile gorri bat)

Manterola.- Zenbat biztanle ote gara gure herri honetan?, hiru milioi?

Urruzola.- Asko jota!

Manterola.- Zenbat kilometro ote ditu guztira?

Pagola.- Zabalean, 250 inguru.

Urruzola.- Goitik behera, beste horrenbeste.

Pagola.- Oso herri txikia da.

Urruzola.- Letonia, gutxi gorabehera.

Pagola.- Edo El Salvador.

Manterola.- Israel ere hortxe-hortxe ibiliko da.

Pagola.- Errepideak, edozeinek dakien bezala,

zubiz, tunelez, mendatez eta bihurgunez josita dauzkagu, baina, bizikleta gainean jarrita, egun bakarra nahikoa da mutur batetik bestera zeharkatzeko.

Urruzola.- Erraz antolatzeko moduko tamaina. Ez dirudi, beraz, inolako eragozpenik egon beharko lukeenik gauzak txukun egiteko...

Manterola.- Zertan ari gara, ordea? Zertan ari dira agintariak?

Urruzola.- Aski lukete oztopoak jendearen aurretik kenduko balituzte; alegia, sen onak agintzen duen bezala jokatu.

Korua.- Sen ona? Zer da hori?

Urruzola.- Zer izango da, ba..., eginkizunen hurrenkera garrantziaren arabera behar bezala banatzeko gaitasuna. Hala ere...

Korua.- Hala ere, zer?

Hirurak.- Herri hau ez dela oraindik herri bat zeharo.

Korua.- Zer da, ba, orduan? (*isilune labur bat*)
Egon, ez esan:

Korukide I.- (*deliberatuki*) puzzle bat.

Korukide II.- buruhauskailu bat.

Korukide III.- Ekuazio algebraiko bat.

Korua.- Ezin al duzue argiago hitz egin?

Pagola.- Nola ez. Azalpen erraza dauka. Kontua da oraindik ere ez daukagula mapa ofizial propio bat sikiera; ez badira, behintzat, turistentzako informazio bulegoek argitaratzen dituzten horiek.

Urruzola.- Euskaldunok bananduko ez gaituen mapa bat.

Manterola.- Elkarrekin bilduko gaituen mapa bat.

Pagola.- Mugarik gabeko mapa bat.

Urruzola.- Auzo-lurraldeetako mapetan bilatu behar izaten ditugu gure herriak, izenak arrotzuta, besteren puska bagina bezala.

Korua.- Esate baterako?

Urruzola.- Espainiako mapan (*hatza luzatu, eta Euskadi eta Nafarroa erakusten ditu mapa gainean*) bi puska okupatzen ditugu.

(*Arestian azaldutako moduan, makilekin joko dute lurraren gainean*).

Pagola.- Frantziako mapan, berriz (*non dagoen erakusten du*), beste bat.

(*Atzera, lurraren gainean joko dute makilekin*).

Manterola.- Egia da, baita ere, badaudela beste mapa batzuk osorik barne hartzen gaituztenak, baina, beti ere, gai jakin bati lotuta; adibidez:

Pagola.- XIX mendean, Luis Luciano Bonapartek, Napoleonen ilobak, mapa bakarrean bildu zuen Euskal Herri osoa, euskalkien hedaduraren berri emateko.

Urruzola.- Orain dela mende erdia gutxi gorabehera, The Basque Lands izeneko mapa osatu zuen CIAk, eta zazpi probintziak batean bildu zituen. Auskalo zertarako!

Pagola.- Ez dira bakarrak; esan bezala, turistentzako mapak ere, esaterako, edonon badaude.

Manterola.- Baina behar bezalako mapa bat, nazio artean dagokigun lekua jasoko duen mapa bat, alderdi askotan ibiliagatik, ez dugu inon aurkitu.

Pagola.- Elkargune geografiko bakarra baino ez daukagu lokarri.

Korua.- Zein?

(Arkatx markatzaile gorria poltsikotik atera, eta maparen gainean bila dabilen puntua aurkitu ondoren, zirkulu gorri bat marraztuko du inguruan)

Pagola.- Endarlatsako zubia. (grazia gutxiko zirtoa dela jakitun)

Urruzola.- Egunen batean, berandu baino lehen, Euskal Herriko hiriburua hementxe egongo da.

Korua.- ez daukagu mapa ofizial bat eta bera ibai, mendi eta basoak badauzkagu itsasertza eta muga batzuk ere bai, baina bilduko gaituen maparik ez; nolana ere, ez dugu itxaropenik galdu nahiz eta ez garen burujabe zeren etorkizun handiko asmoak dauzkagu eta susmo eta beldur batzuk ere bai baina maparik ez daukagu oraindik

Pagola.- Izan ere, zer da, azken batean, kartografia, zientzia militarren adar bat besterik...

Urruzola.- Ez al dugu nahikoa Pirineoetako alde bietan kantatzen eta dantzatzen duen herri bat garela jakinda?

Manterola.- Oraindik ez al dakigu non dagoen beste aldea?

Pagola.- (Mapa altxatu, eta azpian begiratzeko du. Ondoren, mapari begira berriro, Urruzolak hartuko du hitza)

Urruzola.- Honoko hau, adibidez, eguraldiaren mapa da.

Pagola.- Ikus litekeen moduan, erabat berdea da; baina hiru tonu dauzka, hala ere.

Urruzola.- Nafarroan (*hatza altxatzen du*), iratzearena.

Pagola.- Zuberoa, Lapurdi eta Nafarroa Beherean (*hatza altxatzen du*), goroldioarena.

Manterola.- Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian (*hatza altxatzen du*), erramuarena.

Pagola.- Egun batean Estrasburgora joan behar genuela otu zitzaigun. Euskal parlamentari batekin ere hitz egin genuen, baina ez zigun ezer agindu. Egia esan, ez genuen erantzunik espero baina, halako batean, hitzordu bat ailegatu zitzaigun Europar Batasuneko Geografia Institututik.

Korua.- Zer zioten?

Pagola.- Egon pixka batean. Oraintxe agertuko

dizuegu bertako idazkari batekin izan genuen elkarrizketa.

(Urruzolak eta Manterolak ordezkari lanak egingo dituzte, eta Pagolak Institutuko idazkariarena; horrela, bada, jertsea irekitzen duenean, Europar Batasuneko armarrria ikusiko zaio elastikoaren aurreko aldean)

Urruzola.- Euskal Herritik gatoz.

Pagola.- Baionatik?

Manterola.- Ez. Mugaren beste aldetik.

Pagola.- Barkatu. Bilbotik ...

Urruzola.- Ez. Nafarroatik.

Pagola.- Beraz; sanferminetatik.

(Makil-hotsa)

Pagola.- Zerk ekarri zaituzte honaino?

Urruzola.- Oinarrizko eskubide bat aldarrikatzen gatoz. Europako herri zaharrena gara, eta oraindik ez daukagu mapa ofizialik.

Pagola.- Eta jakin al liteke zertarako behar duzuen zuek mapa ofizial bat?

(Urruzola eta Manterola jatorrizko paperean sartuko dira atzera)

Manterola.- Amorruek ez zigun merezi zuen erantzuna ematen utzi. Isilik iraun genuen, baina kopeta zimurtu eta bekozko gelditu zaitzagun begira, esanez bezala:

Manterola.- Zertan zabiltzate?

(Makil-hotsa)

Urruzola.- Noraino iritsi nahi duzue?

(Makil-hotsa)

Pagola.- Ze asmo dabilkizue buru barruan?

(Pagola, jertsea atzera itxi, eta bere aurreko paperera bueltatuko da)

Pagola.- Aspaldi batean, antigoaleko mapa zaharretan, adierazpenik gabeko zona zuri misterioitsuak ageri ziren munduko bazter urrunetan.

Manterola.- Euskal Antonomi Erkidegoko armarrarian bezala...

Urruzola.- Eta, noski, Europako errege baten gosea

asetzeko, lur eta aberastasun asko behar izaten dira.

Manterola.- Eta, edozeinek dakien bezala, kristau misiolarien fedeari eusteko, fedegabe asko salbatu behar izaten dira.

Pagola.- Eta, jakina, antigoaleko zaldun baten gogo asebetezeko guda asko irabazi behar izaten dira.

Urruzola.- Alegia, herriak eta mapak gutxitan datozela bat. Mugak, lehenik eta behin, gudetan erabakitzen dira, eta ondoren idazten dituzte konstituzioak.

Pagola.- Afrikan, esate baterako, basamortu asko daude, eta mugak eskuairaz eta marralumaz ezarrita daudela ematen du.

Urruzola.- Europako orografiaren ezaugarriak, aldiz, askoz bihurriagoak dira, eta, itxuraz, ibaien inguru-minguruak eta mendilerroen gorabeherak hartu behar izan zituzten kontuan.

Pagola.- Horrela, bada, euskaldunok, Volterrek zioen moduan, Pirineoetako alde bietan egiten dugu kanta eta dantza, baina ez, ordea, batera, eta ez dago gure esku Euskal Herriaren geroa bermatzeko aukerarik.

Korua.- Hori al da Estrasburgon jasotako erantzuna

Manterola.- Ez, bereziki. Eman dezagun, erantzuna aztertu eta gero ateratako ondorioak direla gehienbat.

Urruzola.- Agerian dagoena baino gehiago ere gordetzen du mapa batek; kartografia ofizialak berekin dauzka jokoaren arauak; baita erabakiak hartzeko esparruak ere.

8. ATALA

Pagola.- Esan bezala, egun batean Estrasburgora joan behar genuela bururatu zitzaigun, eta handik gutxira, gure aldarrikapena azaldu genuen Europar Batasuneko Geografia Institutu Nagusiaren aurrean.

Korua1.- Egon pixka batean. Orain gu izango gara Mugarik Gabeko Mugalariak, eta zuek, berriz, Estrasburgoko funtzionarioak.

Manterola.- Hala nahi baduzue... Gure aldetik ez dago eragozpenik.

(Agertokiaren bazter batetik hiru aulki hartu, eta mahai gainean jarriko dituzte. Ondoren, Pagola, Urruzola eta Manterola igoko dira eta, eseri aurretik, jertsearen botoiak askatuko dituzte. Elastikoen gainean Europako izarrak dauzkate hirurak. Inguruan, zutik, koruko partaideak daude goiko hirukoteari begira, galderei erantzuteko prest)

Pagola.- Zerk ekarri zaituzte honaino?

Korua.- Oinarrizko eskubide bat aldarrikatzera gatoz.

Korua2.- Europako herri zaharrena gara, eta oraindik ez daukagu mapa ofizialik sikiera.

Urruzola.- Eta jakin al liteke zertarako behar duzuen zuek mapa ofizial bat?

Korua.- Gure lurraldea mugatzeko.

Pagola.- Eta zertarako behar duzue zuen lurraldea mugatu?

Korua.- Bertan bizi den biztanleria zehazteko.

Urruzola.- Eta jakin liteke zertarako behar duzuen biztanleria zehaztu?

Korua.- Gizartea bere buruaren jabe bihurtu dadin.

Pagola.- Eta zertarako behar duzue zuek burujabe bihurtu?

Korua3.- Lehenik eta behin erabakiak zein eremutan hartu behar ditugun erabaki nahi dugu; alegia, eskala jakin bat ezarri nahi dugu.

Urruzola: Eskala jakin bat? Zer da hori? Zertarako?

Korua4.- Entzun. Oraingo demokrazia ez da nahikoa guretzat.

Korua5.- Hara..., alde handia dago gure kabuz erabaki ala espainiarrekin edo frantziarrekin batera.

Korua6.- Emaitzek ez dute zer ikusirik izaten eta, gainera, gure kalterako izaten dira gehienetan.

Manterola.- Ez dut uste euskaldun guztiak bat zatoztenik horren alde.

Korua.- Konforme. Baliteke.

Korua7.- Egon litezke Euskal Herri mailako eskala nahi dutenak, eta egon litezke Espainia mailako eskala nahi dutenak.

Pagola.- Edo Frantzia mailakoa.

Korua8.- Eta egon litezke bata ala bestea nahiago dutenak erabaki beharreko gaiaren arabera.

Korua1.- Kontua da auzi hori erabakizun dagoela oraindik gure artean.

Korua2.- Egun batean, "ez dago gure esku" esaten digute; eta hurrengoan, "ez dago zuen esku".

(Makil-hotsa)

Manterola.- Ea ulertzen dudan... Eskala jakin bat behar duzue erabakitzeko, baina, zer?

Pagola.- Euskal selekzioaren kontu hori?

Manterola.- Bandera?

Urruzola.- Armarría?

Pagola.- Izena?

Manterola.- Mapa?

Korua3.- Erreminta egokia izan liteke gure ezaugarri horiek behar bezala finkatzeko, baina hori ez ezik eta, batez ere, ez dugu jaso dugun nahaste-borraste hau hurrengo belaunaldien erantzukizun utzi nahi.

Korua4.- Alegia, gure iragana eguneratu nahi dugu, harrera egin nahi diogu gure etorkizunari eta egokitu zaigun orainaldia bizi nahi dugu ganoraz.

Urruzola.- Jakin al liteke zertan zabilzaten?

(Makil-hotsa)

Manterola.- Noraino iritsi nahi duzue?

(Makil-hotsa)

Pagola.- Ze asmo dabilkizue buru barruan?

(Makil-hotsa)

Korua.- Etorkizun handiko asmoak dauzkagu, baina susmo eta beldur batzuk ere bai.

Manterola.- Esate baterako?

Korua1.- Esaten zaigu Nafarroa ez dela Euskadi; Euskadi ez dela Nafarroa, eta Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa Frantzian daudela eta, beraz, lurralde batasunik ez dagoen lekuan ezin dela era horretako erabakirik hartu.

Pagola.- Ez al da horrela?

Korua2.- Ez, behintzat, Mugarik Gabeko Mugalarien iritziz, zeren lurralde bat, gure ustez, herritarren borondate demokratikoaren arabera eratu behar da, eta gure gain hartu nahi dugu erantzukizun hori.

Korua3.- Ez dugu mapa ezarri arte itxoingo, eta norbanakoaren burujabetasuna baliatuko dugu azken mugaraino.

Korua4.- Eskubide demokratikoak erabiltzeko, ez da inoren baimenik behar.

Korua4.- Atzetik herritarren gehiengoa baldin badugu, eta denon eskubideak errespetatzen badira, ez dago mugarik aurrera egiteko.

Korua5.- Ez dugu etsiko eta, bidearen buruan, berandu baino lehen, oraindik zehatz-mehatz ezagutzen ez dugun mapa bat agertuko da.

Korua6.- Herriz herri, bailaraz bailara, eskualdez eskualde, herrialdez herrialde...

Korua7.- Eta gehiengoak eta gutxiengoak bilakaera horretan bertan sortuko dira.

Korua.- Azkenean, behingoz, mugak ez dira gerren ondorio izango.

(Makil-hotsa)

Manterola.- Eskalaz aparte, oraindik ez diguzue esan zer erabaki nahi duzuen...

Korua1.- Euskaldunen bizimodua baldintzatzen duten gorabehera nagusi guztiak.

Pagola.- Adibidez?

Korua1.- Hezkuntza sistema...

Korua2.- Politika fiskala...

Korua3.- Hizkuntz politika...

Korua4.- Politika laborala...

Korua5.- Energi estrategiak...

Korua6.- Finantzak...

Korua7.- Komunikabideak...

Korua8.- Industria...

Korua1.- Eta, jakina, beste abar asko.

Korua.- ez daukagu erabakitze eskubiderik
aldarrikapenak, aldiz, badauzkagu, erruz
eta korapilo batzuk ere bai askatzeko
baina erabakitze eskubiderik, ez
nolanahi ere, ez dugu itxaropenik galdu
nahiz eta ez izan burujabe oraindik
zeren etorkizun handiko asmoak dauzkagu
eta susmo eta beldur batzuk ere bai
baina erabakitze eskubiderik, ez

Manterola.- Erabat ados gaude zuekin.

Pagola.- Mugarik Gabeko Mugalarien artean nahi
zaituztegu.

(Makil-hotsak)

Urruzola.- Eskerrik asko zuen harreragatik.

*(Urruzola, Manterola eta Pagola mahai
gainetik jaitsiko dira, eta koruarekin egingo
dute bat. Aurretik, ertzetako txintxetak askatu,
eta mapa berreskuratuko dute panelaren
gainetik. Atzera tolestu, eta motxina baten
barruan sartuko dute. Alde egiteko prestatuko*

dira gero, eta bakoitzak bere motxila hartuko du gainean)

Urruzola.- Agur denoi, gu bagoaz. Oraindik herri asko dauzkagu zain; beraz, jo dezagun lurra makilekin azken aldiz...

(Makil-hotsak)

Pagola.- Etorkizunak lo har ez dezan.

Manterola.- Oraina bertan atzar dadin.

(Antzerkiari hasiera eman dioten gisa berean, koruko kideak pastoralaren konpasean hasiko dira mugitzen; alegia, oin bat eta bestea txandaka lurraren gainean bermatuz, baina abiatu gabe oraindik; alegia, bakoitza bere lekutik mugitu gabe. Gero eta ozenago, makilen hotsa nabarmenduko da giroan, eta handik gutxira martxan jarriko dira. Eskailerak jaitsi eta, aulkien arteko korridorean barrena egingo dute alde, Mugarik Gabeko Mugarik ere atzetik datozela)